

OSAKIDETZAKO ALDI BATERAKO KONTRATAZIOKO ZERRENDAK: OHIKO GALDERAK
(2024ko irailaren 30ean eguneratuta)

1 Nork egin dezake kontratazio-zerrendetan izena emateko eskaera?

Baldintzak betetzen dituen edozein pertsona, Osakidetzaren azken enplegu publikoaren eskaintzan parte hartu duen ala ez kontuan hartu gabe.

2 Edozein unetan eman dezaket izena zerrendetan?

Bai. Aldi baterako kontratazioko zerrendak, eratu ondoren, irekita egongo dira beti, eta edozein unetan erregistratu ahal izango dira izena emateko eskabideak. Izena emateko eskabideak aurkezpen-dataren arabera ordenatuko dira.

3 Noiz sartuko naute indarrean dauden zerrendetan?

Izen-emate berri horiek urtean bitan sartuko dira indarrean dauden zerrendetan, honako zerrenda hauen kasuan: Fakultatibo Medikoak, Psikologia Klinikoko FET, Ospitaleko Farmaziako FET, Erizaintza eta bere espezialitateak, eta Fisioterapeutak.

Beste zerrendetarako, izen-emateak indarrean dauden zerrenda eratueta integratzeari dagokionez, aintzat hartuko dira Giza Baliabideen Zuzendaritzaren ebazpen bidez kategoria / lanpostu funtzional bakoitzerako ezarritako data batera arte (etendura-data) aurkeztutako eskabideak.

4 Zeintzuk dira Osakidetzako kontratazio-zerrendetan sartzeko baldintzak?

Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorretan aurreikusitako baldintzak bete behar ditu (Osakidetzaren azken enplegu publikoaren eskaintzaren oinarri orokorrak kontsulta ditzakezu). Funtsean, honako hauek dira:

a) Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea izatea, edo Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunaren arabera langileen joan-etorri askea aplikatu dakiokeen estaturen bateko nazionalitatea izatea.

Atal horretan jasotzen da, era berean, onartuak izan daitezkeela aurreko paragrafoan aipatzen diren nazionalen ezkontideak, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude, eta izangaiaren eta bere ezkontidearen ondorengoak, baldin eta bi ezkontideak ez badaude zuzenbidez bananduta, ondorengoak hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, euren kargu bizi badira.

b) 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko adina ez gainditzea.

c) Deialdian eskatzen den titulazioa izatea edo titulazio hori jasotzeko eskubideak ordainduta izatea eskabideak aurkezteko epearen barruan.

5 Zein zerrendatan eman dezaket izena?

Egiazta dezakeen titulazioaren arabera.

Sartzeko titulazioak Osakidetzako Lanpostu Funtzionalen Dekretuan eta deitutako azken enplegu publikoaren eskaintzaren oinarri espezifikoetan arautzen dira.

6 Administrari Laguntzailearen eta Administrariaren titulazioak

(Informazioa dokumentu erantsian, dokumentuaren amaieran)

7 Erradiodiagnostikoko Teknikariaren eta Erradioterapiako Teknikariaren titulazioak

(Informazioa dokumentu erantsian, dokumentuaren amaieran)

8 Mantentze-lanetako Ofizialen titulazioak

(Informazioa dokumentu erantsian, dokumentuaren amaieran)

9 Sukaldariaren titulazioak

(Informazioa dokumentu erantsian, dokumentuaren amaieran)

10 Informatikako Teknikariaren titulazioak

(Informazioa dokumentu erantsian, dokumentuaren amaieran)

11 Ofizial Gidariaren titulazioak

(Informazioa dokumentu erantsian, dokumentuaren amaieran)

12 Joskintzako Ofizialen titulazioak

(Informazioa dokumentu erantsian, dokumentuaren amaieran)

13 Girotze Instalazioetako Teknikarien titulazioak

(Informazioa dokumentu erantsian, dokumentuaren amaieran)

14 Instalazio Elektrikoetako Teknikarien titulazioak

(Informazioa dokumentu erantsian, dokumentuaren amaieran)

15 Elektromedikuntzako Instalazioetako Teknikarien titulazioak

(Informazioa dokumentu erantsian, dokumentuaren amaieran)

16 Zer epe daukat izena emateko?

Aldi baterako kontratazioko zerrendak, eratu ondoren, irekita egongo dira beti, eta edozein unetan erregistratu ahal izango dira izena emateko eskabideak. Izena emateko eskabideak aurkezpen-dataren arabera ordenatuko dira.

Hala ere, izen-emateak indarrean dauden zerrenda eratuetan integratzeari dagokionez, aintzat hartuko dira Giza Baliabideen Zuzendaritzaren ebazpen bidez kategoriatu / lanpostu funtzional bakoitzerako ezarritako data batera arte (etendura-data) aurkeztutako eskabideak.

17 Nola sar naiteke eremu pribatuan eskaera egiteko?

Osakidetzan lanean ari bazara, zure NANarekin eta zure ordenagailuan sartzeko pasahitzarekin sar zaitezke, edo "herritar" sarbidearen bitartez, gaitutako edozein ziurtagiri digital erabiliz.

Osakidetzan lanean ari ez bazara, "herritar" sarbideetik sartu behar duzu. Zalantzarik izanez gero, "Herritarrentzako sarbidearen inguruko ohiko galderak" dokumentua kontsulta dezakezu. Dokumentu hori Osakidetzaren aldi baterako kontratazioaren webgunean dago eskuragarri.

18 Laguntza behar dut eskaera egiteko. Nola bete behar dut eskabidea?

Irakurri arretaz "Eskabidea betetzeko jarraibideak". Jarraibideak web-orrian aurkituko dituzu.

19 Alda dezaket nire eskabidea?

Bai. Aldaketak zure eskabidean egin behar dituzu beti, webgune honetan:

<https://lanpoltsa.osakidetza.eus>

Izena emateko eskabidea egiteko jarraibideetan aurkituko dituzu aldaketa egiteko argibideak.

- Edozein unetan alda ditzakezu **datu pertsonalak eta harremanetarako datuak**. Aldaketak hura egin eta 5. egun naturaletik aurrera izango ditu ondorioak.
- Aukeratutako **lanaldi mota** azken aldaketatik hiru hilabete igaro ondoren baino ezin izango duzu aldatu. Aldaketak webgunean eskaera aldatu eta 5. egun naturaletik aurrera izango ditu ondorioak.
- **Zerbitzu-erakundeak edota zentroak aldatzea izendapen luzeen zerrendan:**
 - **Zerbitzu-erakundeak gehitzea.** Edozein unetan egin dezakezu hori. Aldaketak kontratazio-zerrenden hurrengo eguneratzea argitaratzen denean izango ditu ondorioak.
 - **Zerbitzu-erakundeak ezabatzea.** Lehendik aukeratutako zerbitzu-erakundeak ken ditzakezu. Aldaketak webgunean eskaera aldatu eta 5. egun naturaletik aurrera izango ditu ondorioak.
 - Kontuan hartu kendu nahi duzun zerbitzu-erakundearen **barrutia** ez dela aldatuko hurrengo eguneratzerara arte.
- **Zerbitzu-erakundeak edota zentroak aldatzea izendapen laburren zerrendan:**

*Eskaera egitean **ez baduzu hautatzen** zerbitzuak zein **zerbitzu-erakunde eta zentrotan** eman nahi dituzun, ulertuko da EZ duzula izendapen laburren zerrendetan egon nahi. Zerbitzu-erakundeak eta zentroak geroago gehitu ahal izango dituzu, edozein unetan, eta aldaketak kontratazio-zerrenden hurrengo eguneratzearen argitalpenean sartuko dira.

 - **Zerbitzu-erakundeak gehitzea.** Edozein unetan egin dezakezu hori. Aldaketak kontratazio-zerrenden hurrengo eguneratzea argitaratzen denean izango ditu ondorioak.
 - **Zerbitzu-erakundeak edo barrutia ezabatzea.** Lehendik aukeratutako zerbitzu-erakundeak edo barrutiak ken ditzakezu. Aldaketak webgunean eskaera aldatu eta 5. egun naturaletik aurrera izango ditu ondorioak. Ulertuko da uko egiten diozula zerbitzu-erakunde edo barruti horretarako edozein izendapen-eskaintzari.
 - Zerbitzu-erakunde bat eta **haren zentro guztiak** hautatuta badituzu eta **bat kendu nahi baduzu**, lehenik eta behin, zerbitzu-erakunde hori ezabatu beharko duzu, eta, ondoren, honako hauen artean aukeratu:
 - Eremu bat aukeratzea: Lehen Mailako Arreta edo ospitale-arreta
 - Zentroak aukeratzea: gehienez 5 zentro.

Ezabatzeak webgunean eskaera aldatu eta **5. egun naturaletik aurrera** izango ditu ondorioak. Ulertzen da **uko egiten diozula zentro horietarako edozein izendapen-eskaintzari**.

Aldaketak egin baino lehen, kontuan izan **eskatzen dituzun lehentasun berriak ez direla gehituko kontratazio-zerrenden hurrengo eguneratzea argitaratu arte**.

- **Zerbitzu-erakundeak aldatzea, bizilekua beste osasun-barruti batera aldatu duzulako:**

Errolda-ziurtagiria aurkeztu behar duzu eskabidearen bidez, helbidearen eremuan errolda erantsita. Egoitza beste barruti batera aldatzen baduzu **bakarrik** egin ahal izango duzu aldaketa hau.

Zerrenda luzeetan: erroldatuta zauden barrutiko zerbitzu-erakunde bat edo gehiago sar ditzakezu. Aldaketa errolda-ziurtagiria erantsi eta Zuzendaritza Nagusiak onartu eta hurrengo 3 egun baliodunetan izango du eragina.

Zerrenda laburretan: erroldatzen zaren barrutiko zerbitzu-erakunde bat edo bi sar ditzakezu, hautatuta zenezkan erakundeetako bat edo bi kenduta. Aldaketa errolda-ziurtagiria erantsi eta Zuzendaritza Nagusiak onartu eta hurrengo 3 egun baliodunetan izango du eragina.

GARRANTZITSUA: kontuan izan eskabide balioduna eguneratzeko edota integratzeko muga-eguna baino lehen egin duzun azkena izango dela.

20 Zenbat eskabide egin ditzaket? Zenbat zerrendatan eman dezaket izena?

Eskabide bat egin behar duzu izena eman nahi duzun zerrenda bakoitzerako.

21 Nola aurkez ditzaket baldintzak eta merezimenduak egiaztatzeko agiriak?

Eskaeraren "Eskakizunak eta merezimenduak alegatu" atala bete behar duzu.

Eskabidea egitean, betekizunen eta merezimenduen atalean mekanizatu eta erantsi beharko dira egiaztagiria, salbu eta dokumentazio hori Curriculum Vitae aplikazioan erregistratuta eta baliozkotuta badago.

Elektronikoki baliozkotuko da erantsitako dokumentazioa. Agiri horiek elektronikoki baliozkotu ezin badira, jatorrizko dokumentua edo dokumentu konpultsatua aurkezteko eskatuko dizu kontratazioa kudeatzen duen unitateak.

Alegatutako betekizunak eta merezimenduak egiaztatzen dituzten agirietan faltsutze-zantzurik badago, Zigor Kodearekin bat jardungo du Osakidetzak, eta izangaia behin-behinean baztertuta geratuko da izena emateko eskabidea aurkeztu duen aldi baterako kontratazioko zerrenda guztietatik.

22 Noiz eguneratuko da eskakizunak eta merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa?

Curriculum Vitae aplikazioan mekanizatutako eta erantsitako egiaztagiria, behin baliozkotuta, egiten den hurrengo eguneratzean hartuko dira kontuan; betiere, zerrendan integratu ostean.

23 Nola egiaztatzen dira IT txartelaren ziurtagiriak CV aplikazioan?

Ez da beharrezkoa CVan erregistratzea. IT Txartelaren ziurtagiri guztiak automatikoki kargatuko dira.

Administrari kategorian inskribatutako izangaiek honako modulu hauei dagozkien informatika-ezagutzak egiaztatu beharko dituzte: Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 maila aurreratua; Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010; Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 maila aurreratua, eta Microsoft Access 2000/XP/2003 maila aurreratua. Modulu horiek Euskadi Informazioaren Gizartean Planak eskaintzen ditu KZgunea zentro publikoetan.

Era berean, Administrari Laguntzailea kategorian parte inskribatutako izangaiek honako modulu hauei dagozkien informatika-ezagutzak egiaztatu beharko dituzte: Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 maila aurreratua eta Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarritzko maila. Modulu horiek Euskadi Informazioaren Gizartean Planak eskaintzen ditu KZgunea zentro publikoetan.

24 Nola egiaztatzen dira Osakidetzan emandako zerbitzuak?

Automatikoki kargatzen dira. Ez da beharrezkoa erregistratzea.

25 Nola ordenatzen dira zerrendak, lehentasunak daude? Nola barkatzen dira?

Zerrenda bakarra da. Hautagai guztiak puntuazioaren arabera ordenatuko dira.

Puntuazioa baremo hauen emaitza da:

- a) EPEko oposizioaldiko puntuazioa: gehienez, 100 puntu.
- b) Lan-esperientzia: gehienez, 60 puntu.
- c) Euskara: Kategoriaren arabera, 24 puntu (C1), 16 puntu (B2) edo 8 puntu (B1).

26 Ez daukat Osakidetzako hizkuntza-eskakizunik egiaztatuta, baina bai beste euskara-ziurtagiririk. Zein dira Osakidetzako euskara-ziurtagirien baliokidetasunak?

(Informazioa eranskinean, dokumentuaren amaieran)

27 Zer zerrenda mota daude?

Izendapen laburren zerrendak, barrutiko izendapen laburren zerrendak, izendapen luzeen zerrendak eta barrutiko izendapen luzeen zerrendak.

28 Izendapen laburren zerrendarako eta barrutiko izendapen laburren zerrendarako destinoak aukeratzea.

Pertsona bakoitzak bat edo bi zerbitzu-erakundetan sartzeko eskatu ahalko du.

Zerbitzu-erakunde bat edo bi hautatuz gero, hau egin ahalko da ZE bakoitzean:

- a) ZE osoa aukeratu.
- b) Eremuaren arabera aukeratu (Lehen Mailako Arreta edo ospitaleko arreta).
- c) Gehienez bost lehentasun aukeratu ahal izango dira: ospitale-esparruaren eta alde zentraleratik hautatutako zerbitzu-erakundeko Lehen Mailako Arretako unitateen (LMAU) artean.

LARRIALDIAK eta **ZUZENDARITZA NAGUSIA** aukeratuz gero, zerbitzu-erakunde osoa edo hiru lurraldeetako bat aukera daitezke.

TGEEZren kasuan (Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa), ZE osoa edo 2 zentroetako bat (Gasteiz edo Galdakao) hauta daiteke.

Osasun Mentaleko Sareren kasuan:

- o **Araba (AOMS):** Zerbitzu-erakundea baino ezin da aukeratu. Esparruak eta destinoak ez daude banakatuta.
- o **Gipuzkoa (GOMS):** zerbitzu-erakunde osoa hauta dezakezu, **edo gehienez ere 5 destino**. Ez dago esparrurik.
- o **Bizkaia (BOMS):** honako hauek aukera ditzakezu:
 - a) Zerbitzu-erakunde osoa
 - b) Esparruaren arabera: **ospitale esparrua edo esparru komunitarioa; edo**
 - c) Lehentasunen arabera: eremu komunitarioaren barruan, honako hauek hauta ditzakete: **Barrualdeko Eskualdea, Bilboko Eskualdea, Ezkerraldeko Eskualdea eta Uribeko Eskualdea**. Ospitale-eremuaren barruan: Zaldibarko Ospitalea, Zamudioko Ospitalea eta Bermeoko Ospitalea; **gehienez ere bost lehentasunekin**.

Ez baduzu hautatzen zerbitzuak zer zerbitzu-erakunde eta zentrotan eman nahi dituzun, **ulertuko da ez duzula izendapen laburren zerrendetan egon nahi**.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Barrutietarako aldi baterako kontratazioko zerrenda bat eratuko da.

Izendapen laburren zerrendetan barruti horretako zerbitzu-erakunde bat gutxienez aukeratu dutenek osatuko dute zerrenda hori.

Barrutiko izendapen laburren zerrenda hori erakunde jakin bateko izendapen laburren zerrenda agortzen denean erabiliko da.

29 Izendapen luzeen zerrendetarako eta barrutiko izendapen luzeen zerrendarako destinoak aukeratzea.

Hautaketa-kasuak:

1. Nahi beste zerbitzu-erakunde eta barruti hauta ditzakezu, mugarik gabe.
2. Ez baduzu barrutirik hautatzen, baina zerbitzu-erakundeak hautatzen badituzu, hautatu dituzun zerbitzu-erakundeetako zerrendetan eta hautatutako zerbitzu-erakundeen barrutiko zerrendetan egongo zara.
3. Ez baduzu Zerbitzu-erakunderik aukeratzen baina barrutia hautatzen baduzu, 3 barrutietako Zerbitzu-erakunde guztien zerrendetan eta aukeratutako barrutiaren/barrutien zerrendetan sartuko zara.
4. Ez baduzu aukeratzen ez zerbitzu-erakunderik ez barrutirik, **hiru barrutietako zerbitzu-erakunde guztien zerrendetan eta hiru barrutien zerrendetan sartuko zara.**

Barrutiko izendapen luzeen zerrenda erakunde jakin bateko izendapen luzeen zerrenda agortzen denean erabiliko da.

30 2018-19 EPEan deitutako kategoriei dagozkien zerrendak.

2018-19 EPEan sartutako kategoriei dagozkien zerrendak **eguneratu** egingo dira oposizio-faseari dagokion puntuazioarekin, lanbide-esperientziarekin eta 2024ko ekainaren 30ean egiaztatutako euskarazko hizkuntza-eskakizunekin.

Halaber, bertan **sartuko** dira 2024ko maiatzaren 19an inskripzio-eskaera egin duten pertsona guztiak, baldin eta eskatutako baldintzak betetzen badituzte.

31 Katategoria berrien zerrendak. Noiz sartuko dira indarrean zerrendak?

2021eko egungo kontratazio-zerrendetan ez dauden katategoria berrien kontratazio-zerrendak; behin betiko zerrendak argitaratzen direnean jarriko dira indarrean. Aldez aurretik behin-behineko zerrendak argitaratuko dira eta erreklamazioak aurkezteko epea irekiko da.

32 Europar batasunaz kanpoko fakultatibo medikoak eta erizainak aldi baterako kontratazio-zerrendetan izena emateko eskabidea egiteko nazionalitate-betekizunetik salbuestea

Europar Batasunaz kanpoko fakultatibo medikoek eta erizainek Osakidetzako **aldi baterako kontratazio-zerrendetan izena emateko eskaera** egin dezakete, betiere espezialista medikoen eta erizaintzako langileen katategoria/lanpostu funtzional jakin batzuetan sartzeko homologatutako titulazioaren betekizuna betetzen badute.

KONTRATAZIO-ZERBITZUA

ERANSKINA – TITULAZIOEN BALIOKIDETASUNAK

ADMINISTRARIA

- 1.1** OSAKIDETZA ENTE PUBLIKOAREN LANPOSTU FUNTZIONALAK ARAUTZEN DITUEN UZTAILAREN 19KO 186/2005 DEKRETUAN ADMINISTRARIAK LANPOSTU FUNTZIONALETARAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA

ADMINISTRARIA	Administrazioko eta Finantzetako Goi Mailako Teknikaria, Idazkaritzako Goi Mailako Teknikaria, Titulazio baliokidea*
---------------	--

- 1.2** ADMINISTRARIA LANPOSTU FUNTZIONALERAKO LANPOSTU FUNTZIONALEN DEKRETUAN EZARRITAKO TITULAZIOEN BALIOKIDEAK

TEKNIKARI ESPEZIALISTA , Hezkuntzari eta Hezkuntza Erreformaren Finantzaketari buruzko abuztuaren 4ko 14/1970 LEGEARENA .
TEKNIKARI ESPEZIALISTA (BIGARREN MAILAKO LH ETA III. MAILAKO MODULU PROFESIONALAK) , Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 LEGE ORGANIKOARENA .
ADMINISTRAZIO ETA FINANTZETAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA, 777/1998 ERREGE DEKRETUARENA (administrazio eta finantzetako goi-mailako teknikaria eta idazkaritzako goi-mailako teknikaria aztertzen ari garen kasuetan).
Batxilergo-titulua (BBB, 14/1970 Legea). Goi-mailako batxilergoko edozein titulu (orokorra, lanekoa edo teknikoa).
Goi-mailako lanbide-heziketan, arte plastikoetako eta diseinuko goi-mailako ikasketa profesionaletan eta goi-mailako kirol-irakaskuntzetan sartzeko proba gainditzea batxilertituluaren baliokidea izango da, enplegu publiko eta pribatuetan sartzeko baino ez, betiere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo baliokide akademikoa duela egiaztatzen badu interesdunak.

Hemeretzi urtetik gorakoentzako goi-mailako arte-irakaskuntzetarako sarbide-proba gainditzea batxiler-titulua baliokidea izango da, enplegu publiko eta pribatuetarako sarbidearen ondorioetarako bakarrik, baldin eta honako baldintza hauetakoren bat egiaztatzen bada:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo ondorio akademikoetarako baliokidea den titulua izatea.
- EDU/1603/2009 Aginduaren 3. artikuluko 1. puntuan ezarritako baliokidetasuna izatea.

Gutxienez goi mailako 15 ECTS kreditu gainditu izana (kontuan hartu Aginduaren 5. xedapen gehigarria). EDU/1603/2009, EDU/520/2011 Aginduaren arabera), goi mailako arte-irakaskuntzei buruzkoa.

Hogeita bost urtetik gorakoek unibertsitatean sartzeko duten proba gainditzea, betiere honako baldintza hauetakoren bat betetzen dela egiaztatzen bada, edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo horren baliokidea izatea ondorio akademikoetarako edo lanbide-ondorioetarako, edo unibertsitate-ikasketetako 15 ECTS kreditu gutxienez gainditu izana (EDU/1603/2009 Aginduaren 5. xedapen gehigarria, EDU/520/2011 Aginduak aldatua).

Ez du baliorik izango, lanbide-ondorioetarako, DBHko graduatu-tituluekiko baliokidetasunak, EDU/520/2011 Aginduaren 3.5 artikuluan ezarritakoaren arabera lortutakoak.

LOGSEren aurreko batxilergoren bateko ikasketa partzialak, Oinarrizko Batxilergoa izan ezik, baldin eta egiaztatzen bada bere garaian gainditu gabe zegoela goi-mailako proba edo errebalida edo dagokion batxilergoko gehienez bi ikasgai.

LHko edo Arte Plastiko eta Diseinuko teknikari-titulua edo kirol-teknikaria, edozein modalitatetan.

Teknikari laguntzailearen titulua, 14/1970 Lege Orokorrekoa.

EDU/520/2011 Aginduaren II. eranskinean zerrendatutako arte-irakaskuntzetako ikasketa jakin batzuk gainditu izana dokumentu ofizialen bidez egiaztatzea.*

* Hezkuntza-administrazioak banakako ebazpena eman behar du, dokumentazioa egiaztatzeko.

Erregulatzeko araudia: 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa (BOE, 2006ko maiatzaren 4koa); EDU/1603/2009 Agindua, Hezkuntza Lege Organikoan araututako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu eta Batxilergoko tituluekiko baliokidetasunak ezartzen dituen (EDU/520/2011 Aginduak aldatua).

ADMINISTRAZIOKO LAGUNTZAILEA

LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN ADMINISTRAZIOKO LAGUNTZAILEEN
ETA ERABILTZAILAILEEN ARRETAKO LANGILEAREN LANPOSTU FUNTZIONALERAKO
EZARRITAKO TITULAZIOEN BALIOKIDEAK

TEKNIKARI LAGUNTZAILEA , Hezkuntzari eta Hezkuntza Erreformaren Finantzaketari buruzko abuztuaren 4ko 14/1970 LEGEARENA .
TEKNIKARI LAGUNTZAILEA (LEHEN MAILAKO LH ETA II. MAILAKO MODULU ESPERIMENTALAK) , Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 LEGE ORGANIKOARENA .
777/1998 ERREGE-DEKRETUKO DAGOKION LANBIDEKO TEKNIKARIA (aztergai dugun kasuan, administrazio-kudeaketako teknikaria).
Eskola-graduatuaren ziurtagiria.
Giza Zientzietako 6 ikasturte oso eta, gutxienez, Filosofiako ikasturte oso bat, edo bestela, Giza Zientzietako 5 ikasturte oso eta eliza-ikasketen Filosofiako gutxienez 2.
25 urtetik gorakoek unibertsitatean sartzeko proba gaindituta izatea.
Hauetan sartzeko proba gainditzea: <ul style="list-style-type: none">• erdi- edo goi-mailako arte plastikoetako eta diseinuko ikasketa profesionalak,• erdi- edo goi-mailako lanbide-heziketa,• erdi edo goi mailako kirol ikasketak,• goi-mailako arte-irakaskuntzak 19 urtetik gorakoentzat
eta baldintza hauetako gutxienez bat ziurtagiri bidez frogatzea: <ul style="list-style-type: none">• Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen bi ikasturteetako ikasgai guztiak gainditzea.• Erdi-mailako heziketa-zikloa eginda izatea eta heziketa-zikloaren iraupen osoaren erdia, gutxienez, osatzen duten lanbide-moduluen kopurua gaindituta izatea.• Goi-mailako zikloa eginda izatea eta heziketa-zikloaren iraupen osoaren herena, gutxienez, osatzen duten lanbide-moduluen kopurua gaindituta izatea.• Goi-mailako gutxienez 10 ECTS kreditu gainditu izana (EDU/1603/2009 Aginduaren 5. xedapen gehigarria kontuan hartzea, EDU/520/2011 Aginduaren idazketaren arabera) goi-mailako arte-irakaskuntzetan.• DBHko hirugarren mailan sartzeko Espainiako hezkuntza-sisteman eskatzen den eskolatzeko-mailaren balioak diren atzerriko ikasketak izatea egiaztatzea.• Helduentzako bigarren hezkuntzako I. mailako esparru guztiak gainditzea.

Oinarrizko Batxilergoko edozein titulu izatea edo honako hauek gainditzea:

- a) Batxilergoko lau ikasturte oso, abuztuaren 4ko 14/1970 Legearen aurreko edozein ikasketa-planengatik, proba orokorrik edo errebalidarik gabe.
- b) Batxilergo teknikoko edo lan-batxilergoko bost urte, multzo-probarik gabe edo errebalidarik gabe.
- c) Eliza-karreraren Giza Zientzietako lau ikasturte oso.

1945/07/17 Legearen eta 21/12/1965 Legearen ondoriozko Lehen Mailako Ikasketen Ziurtagiria.

Lehen mailako ikasketen ziurtagiria lortzeko baldintzak bete izanaren egiaztagiria.

* Egiaztatu nahi den dokumentazioari dagokion hezkuntza-administrazioak emandako banakako ebazpena beharrezkoa da.

Erregulatzeko araudia: 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa (2006ko maiatzaren 4ko BOE), EDU/1603/2009 Agindua –EDU/520/2011 Agindu bidez aldatua–, zeinaren bidez Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan araututako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko graduatu-tituluekin baliokidetasunak ezartzen baitira.

LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN ERRADIODIAGNOSTIKOKO TEKNIKARI ETA ERRADIOTERAPIAKO TEKNIKARIAREN LANPOSTU FUNTZIONALERAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA, ETA HORIEN BALIOKIDETASUNAK.

LANPOSTU FUNTZIONALA	Lanpostu funtzionalei buruzko Dekretuan eskatzen diren titulazioak	Titulazio baliokideak Hezkuntza-sistemaren esparruan lanbide-heziketaren antolamenduaren zenbait alderdi garatzen dituen apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuan.	Titulazio berriak: Horiek sortzeko dekretuetan ezarritako baliokidetasunak.
ERRADIODIAGNOSTIKOKO TEKNIKARIA	Diagnosirako irudietako goi-mailako teknikaria.	Erradiodiagnostikoko teknikari espezialista	Diagnosirako irudietako eta medikuntza nuklearreko goi-mailako teknikaria, irailaren 12ko 770/2014 Errege Dekretu bidez sortua.
ERRADIOTERAPIAKO TEKNIKARIA	Erradioterapiako goi-mailako teknikaria	Erradioterapiako teknikari espezialista Medikuntza nuklearreko teknikari espezialista	Erradioterapiako eta dosimetriako goi-mailako teknikaria, irailaren 12ko 772/2014 Errege Dekretu bidez sortua.

LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN MANTENTZE-LANETAKO OFIZIALAREN LANPOSTU FUNTZIONALERAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA ETA HORIEN BALIOKIDETASUNAK.

LANPOSTU FUNTZIONALAK	Lanpostu funtzionalei buruzko Dekretuan eskatzen diren titulazioak	Titulazio baliokideak Hezkuntza-sistemaren esparruan lanbide-heziketaren antolamenduaren zenbait alderdi garatzen dituen apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuan.	Titulazio berriak: Horiek sortzeko dekretuetan ezarritako baliokidetasunak.
INSTALAZIOEN MANTENTZE-LANETAKO OFIZIALA	TEKNIKARIA (mantentze-lanetako ofizialaren titulazioak)		
MANTENTZE-LAN ELEKTRIKOETAKO OFIZIALA	Ekipamendu eta instalazio elektroteknikoetako teknikariaren titulua	Elektrizitateko teknikari laguntzailea (Elektrizitatea eta Elektronika) * Elektrizitateko instalatzaile-mantentzailea (Elektrizitatea eta Elektronika)	Instalazio elektriko eta automatikoetako teknikariaren titulua, otsailaren 8ko 177/2008 Errege Dekretuaren bidez sortua.
MANTENTZE-LAN MEKANIKOETAKO OFIZIALA	Makineriako eta linea-gidaritzako instalazio eta mantentze-lan elektromekanikoetako teknikaria	* Lineako mantentze-lanak (metala) * Mantentze-lan industriala (metala)	Mantentze-lan elektromekanikoetako teknikaria, azaroaren 4ko 1589/2011 Errege Dekretu bidez sortua.

LANPOSTU FUNTZIONALAK	Lanpostu funtzionalei buruzko Dekretuan eskatzen diren titulazioak	Titulazio baliokideak Hezkuntza-sistemaren esparruan lanbide-heziketaren antolamenduaren zenbait alderdi garatzen dituen apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuan.	Titulazio berriak: Horiek sortzeko dekretuetan ezarritako baliokidetasunak.
BEROKUNTZAKO ETA ITURGINTZAKO MANTENTZE- LANETAKO OFIZIALA	Hotzeko, klimatizazioko eta bero-sorkuntzako muntaketako eta mantentze-lanetako teknikaria	Iturgintzako teknikari laguntzailea (eraikuntza eta obrak) * Ur, gas eta berokuntzako instalazioak (eraikuntza eta obrak) * Hotz- eta bero-ekipamenduen instalazioa eta mantentze-lanak (elektrizitatea eta elektronika)	Bero-sorkuntzako instalazioetako teknikariaren titulua, abenduaren 30eko 1792/2010 Errege Dekretuaren bidez sortua. Hozte- eta klimatizazio-instalazioen teknikariaren titulua, abenduaren 30eko 1793/2010 Errege Dekretuaren bidez sortua.
IGELTSEROTZAKO MANTENTZE- LANETAKO OFIZIALA	Igeltserotza-obretako teknikaria	- Igeltserotzako teknikari laguntzailea (eraikuntza eta obrak) - Teilatu-emaile teknikari laguntzailea (eraikuntza eta obrak) * Igeltserotza (eraikuntza eta obrak) * Eraikin-estalketa (eraikuntza eta obrak)	Eraikuntza-teknikaria, azaroaren 4ko 1575/2011 Errege Dekretu bidez sortua.

ZURGINTZAKO MANTENTZE- LANETAKO OFIZIALA	Zurgintza-instalazioen eta altzarien neurrirako fabrikazioko teknikaria	- Zurgintzako teknikari laguntzailea (zura) * Zurgintza eta altzariak (zura)	Altzari-instalazioko eta -hornikuntzako teknikariaren titulua, ekainaren 24ko 880/2011 Errege Dekretuaren bidez sortua.
PINTURAKO MANTENTZE- LANETAKO OFIZIALA	Eraikuntza-akaberetako teknikaria	- Dekorazio-pintura (eraikuntza eta obrak) - Pintura (eraikuntza eta obrak) - Dekorazioa (eraikuntza eta obrak) *Eraikuntza-akaberak (eraikuntza eta obrak) *Pintura-zaharberritzea (eraikuntza eta obrak) *Pintura-teknikak (eraikuntza eta obrak)	Barneko obretako, dekorazioko eta zaharberritzeko teknikariaren titulua, azaroaren 18ko 1689/2011 Errege Dekretuaren bidez sortua.

LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN SUKALDARIAREN LANPOSTU FUNTZIONALERAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA, ETA HORIEN BALIOKIDETASUNAK.

LANPOSTU FUNTZIONALA	Lanpostu funtzionalei buruzko Dekretuan eskatzen diren titulazioak	Titulazio baliokideak Hezkuntza-sistemaren esparruan lanbide-heziketaren antolamenduaren zenbait alderdi garatzen dituen apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuan.	Titulazio berriak: Horiek sortzeko dekretuetan ezarritako baliokidetasunak.
SUKALDARIA	Sukaldaritzako goi-mailako teknikaria	Ostalaritzako teknikari espezialista	<p>Sukaldaritzazuzendaritzako goi-mailako teknikaria, maiatzaren 20ko 687/2010 Errege Dekretu bidez sortua.</p> <p>Sukaldaritzazerbitzuen zuzendaritzako goi-mailako teknikaria, maiatzaren 20ko 687/2010 Errege Dekretu bidez sortua.</p>

LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN MANTENTZE-LANETAKO OFIZIALEN LANPOSTU FUNTZIONALERAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA ETA HORIEN BALIOKIDETASUNAK.

LANPOSTU FUNTZIONALA	Lanpostu funtzionalei buruzko Dekretuan eskatzen diren titulazioak	Titulazio baliokideak Hezkuntza-sistemaren esparruan lanbide-heziketaren antolamenduaren zenbait alderdi garatzen dituen apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuan.	Titulazio berriak: Horiek sortzeko dekretuetan ezarritako baliokidetasunak.
INFORMATIKAKO TEKNIKARIA	<p>Informatika-sistemen administrazio-ko goi-mailako teknikaria</p> <p>Aplikazio informatikoen garapeneko goi-mailako teknikaria</p>	<p>Enpresako informatikako teknikari espezialista</p> <p>Enpresako informatikako teknikari espezialista</p> <p>Enpresa-informatikako teknikari espezialista</p> <p>Kudeaketa-informatikako teknikari espezialista</p> <p>Administrazio-kudeaketako programatzaile teknikari espezialista</p> <p>Kudeaketa-aplikazioko programatzaile teknikari espezialista</p> <p>3. mailako modulu profesionala - Kudeaketa-informatikako programatzailea</p> <p>3. mailako modulu profesionala - Kudeaketa-programatzailea</p>	<p>Sareko informatika-sistemen kudeaketako goi-teknikaria, urriaren 30eko 1629/2009 Errege Dekretu bidez sortua.</p> <p>Plataforma anitzeko aplikazioen garapeneko goi-mailako teknikaria, maiatzaren 16ko 450/2010 Errege Dekretuak araututakoarekin bat.</p>

LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN OFIZIAL GIDARIAREN LANPOSTU FUNTZIONALERAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA.

LANPOSTU FUNTZIONALA	Eskatzen diren titulazioak
ZERBITZU OROKORRETAKO GIDARIA	Edozein teknikari-titulazio edo baliokidea B motako gidabaimena edo baliokidea izatea
GARRAIO SANITARIOAREN OFIZIAL GIDARIA	Edozein teknikari-titulazio edo baliokidea B motako gidabaimena edo baliokidea izatea C eta/edo D motako gidabaimena izatea (818/2009 ED) Garraio sanitarioaren profesionaltasun-ziurtagiria (710/2011 ED) edo dagokion habilitazioa (836/2012 ED)
ZERBITZU OROKORRETAKO OFIZIAL GIDARIA	Emergentzia Sanitarioetako Teknikariaren titulua edo dagokion habilitazioa izatea (836/2012 ED) B motako gidabaimena edo baliokidea izatea C motako gidabaimena izatea (818/2009 ED)

LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN JOSUNDEGIKO OFIZIALEN LANPOSTU FUNTZIONALERAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA ETA HORIEN BALIOKIDETASUNAK.

LANPOSTU FUNTZIONALA	Lanpostu funtzionalei buruzko Dekretuan eskatzen diren titulazioak	Titulazio baliokideak Hezkuntza-sistemaren esparruan lanbide-heziketaren antolamenduaren zenbait alderdi garatzen dituen apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuan.	Titulazio berriak: Horiek sortzeko dekretuetan ezarritako baliokidetasunak
JOSTUNDEGIKO OFIZIALA	Jantzigintzako-teknikaria	Moda eta jantzigintzako teknikari laguntzailea, moda eta jantzigintzako adarra Industria-jantzigintzako teknikari laguntzailea, moda eta jantzigintzako adarra	Jantzigintzako eta modako teknikaria

LANPOSTU FUNTZIONALEN DEKRETUAN GIROTZE INSTALAZIOETAKO TEKNIKARIA LANPOSTU FUNTZIONALERAKO ETA HAREN BALIOKIDETZETARAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA

LANPOSTU FUNTZIONALA	Lanpostu funtzionalen Dekretuan eskatzen diren titulazioak	Titulazio baliokideak apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuan, hezkuntza-sistemaren eremuan Lanbide Heziketaren antolamenduaren zenbait alderdi garatzen dituenen.	Titulazio berriak: haiek sortzeko dekretuetan ezarritako baliokidetasunak.
GIROTZE INSTALAZIOETAKO TEKNIKARIA	Eraikuntzako eta Prozesuko Instalazioak Mantentzeko eta Muntatzeko Goi Mailako Teknikaria	<p>Eguzki-energiaren aprobetxamendua (elektrizitatea eta elektronika)</p> <p>Eguzki-energiako ekipamenduen eta airea girotzeko ekipamenduen mantentze-lanak (elektrizitatea eta elektronika)</p> <p>Aire girotua eta hotza/beroa (elektrizitatea eta elektronika) Iturgintza (eraikuntza eta obrak) Hotz industrialia (elektrizitatea eta elektronika) Hozteko eta girotzeko instalazioak (elektrizitatea eta elektronika)</p> <p>Eguzki-energiako instalazioak (elektrizitatea eta elektronika)</p> <p>Prozesuko instalazio termiko osagarriak (elektrizitatea eta elektronika)</p> <p>Hozteko eta girotzeko instalazioak (elektrizitatea eta elektronika)</p> <p>Zerbitzu-instalazioen eta instalazio osagarrien mantentze-lanak (elektrizitatea eta elektronika)</p>	Instalazio Termiko eta Fluidodunen Mantentzeko Goi Mailako Teknikaria (otsailaren 15eko 220/2008 Errege Dekretua)

LANPOSTU FUNTZIONALEN DEKRETUAN INSTALAZIO ELEKTRIKOETAKO TEKNIKARIA LANPOSTU FUNTZIONALERAKO ETA HAREN BALIOKIDETZETARAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA

LANPOSTU FUNTZIONALA	Lanpostu funtzionalen Dekretuan eskatzen diren titulazioak	Titulazio baliokideak apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuan, hezkuntza-sistemaren eremuan Lanbide Heziketaren antolamenduaren zenbait alderdi garatzen dituenen.	Titulazio berriak: haiek sortzeko dekretuetan ezarritako baliokidetasunak.
INSTALAZIO ELEKTRIKOETAKO TEKNIKARIA	Instalazio Elektroteknikoetako Goi Mailako Teknikaria	<p>Instalazio eta linea elektrikoak (elektrizitatea eta elektronika)</p> <p>Makina elektrikoak (elektrizitatea eta elektronika)</p> <p>Itsasontzi-elektrizitatea (elektrizitatea eta elektronika)</p>	Sistema Elektrotekniko eta Automatizatueta Go Mailako Teknikaria (irailaren 10eko 1127/2010 Errege Dekretua)

LANPOSTU FUNTZIONALEN DEKRETUAN ELEKTROMEDIKUNTZAKO INSTALAZIOETAKO TEKNIKARIA LANPOSTU FUNTZIONALERAKO ETA HAREN BALIOKIDETZETARAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA

LANPOSTU FUNTZIONALA	Lanpostu funtzionalen Dekretuan eskatzen diren titulazioak	Titulazio baliokideak apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuan, hezkuntza-sistemaren eremuan Lanbide Heziketaren antolamenduaren zenbait alderdi garatzen dituenen.	Titulazio berriak: haiek sortzeko dekretuetan ezarritako baliokidetasunak.
ELEKTROMEDIKUNTZAKO INSTALAZIOETAKO TEKNIKARIA	Produktu Elektronikoen Garapeneko Goi Mailako Teknikaria	<p>Elektronika industrial (elektrizitatea eta elektronika)</p> <p>Sistemen elektronika (elektrizitatea eta elektronika)</p> <p>Kontrol eta mantentze industrialeko elektronika (elektrizitatea eta elektronika)</p> <p>Sistema automatiko eta programagarriak (elektrizitatea eta elektronika)</p>	Mantentze Elektronikoko Goi Mailako Teknikaria - Azaroaren 4ko 1578/2011 Errege Dekretua

OSAKIDETZAKO EUSKARA-ZIURTAGIRIEN BALIOKIDETASUNAK

OSAKIDETZA	1. HE	2. HE	3. HE	4. HE
Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoa	B1	B2	C1	C2
APEI/ IVAP	1 Hizkuntza eskakizuna	2 Hizkuntza eskakizuna	3 Hizkuntza eskakizuna	4 Hizkuntza eskakizuna
HABE	B1 maila – 1. maila	B2 maila – 2. maila	C1 maila – 3. maila	C2 maila – 4. maila
Ertzaintza		1 Hizkuntza eskakizuna	2 Hizkuntza eskakizuna	
Hezkuntza Saila		Irakaspostuen 1HE	Irakaspostuen 2HE EGA	
Euskaltzaindia			D agiria	B agiria
Hizkuntza Eskola Ofiziala	3. maila (Antzinako ikasketa plana) Tarteko maila Tarteko B1 maila	4. maila (Antzinako ikasketa plana) Maila aurreratua Tarteko B2 maila	5. maila edo Euskal Gaitasun maila (Antzinako ikasketa plana) Gaitasun maila C1	
Nafarroako Gobernua	B1	B2	C1 EGA	C2
Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoa- Office Public de la Langue Basque	B1	B2	C1 EGA	
Labayru			3. maila	

EUSKARAZ EGINDAKO IKASKETA OFIZIALAK ETA EUSKERA-MAILA HORRETAKO HIZKUNTZA EGIAZTATZETIK SALBUETSITA DAUDEN IKASKETAK

OSAKIDETZA	PL1	PL2	PL3	PL4
Marco Europeo de Referencia para las Lenguas	B1	B2	C1	C2
IVAP	Perfil Lingüístico 1	Perfil Lingüístico 2	Perfil Lingüístico 3	Perfil Lingüístico 4
HABE	Nivel B1 – Nivel 1	Nivel B2 – Nivel 2	Nivel C1 – Nivel 3	Nivel C2 – Nivel 4
Ertzaintza		Perfil Lingüístico 1	Perfil Lingüístico 2	
Departamento de Educación		PL1 Docentes	PL2 Docentes EGA	
Euskaltzaindia			Certificado D	Certificado B
Escuelas Oficiales de Idiomas	Tercer curso de euskera (Plan de estudios antiguos) Nivel intermedio Nivel Intermedio B1	Cuarto curso de euskera (Plan de estudios antiguos) Nivel Avanzado Nivel Intermedio B2	Quinto curso de euskera o Certificado de Aptitud (Plan de estudios antiguos) Nivel de Aptitud (C1) Nivel Avanzado (C1)	
Gobierno de Navarra	B1	B2	C1 EGA	C2
Office Public de la Langue Basque	B1	B2	C1 EGA	
Labayru			3. maila	

